

8/24

irizpena

Farmazia-bulegoetan giza nutrizioaren
eta dietetikaren atala arautzen duen
dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2024ko ekainaren 28a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 8/24

I.- AURREKARIAK

2024ko ekainaren 10ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Osasun Sailaren idazkia sartu zen. Horren bidez, “farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atala arautzen duen dekretu-proiektuari buruzko” txostena eskatzen zuen, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontsultatzen zaigun arauaren xedea da, 1. artikuluan azaltzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atala arautzea. Horretarako, farmazia-bulegoko giza nutrizioaren eta dietetikaren ataltzat hartzen da atal horretako berezko funtzio eta jardueretan diharduten baliabide materialen eta giza baliabideen multzoa.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritziak bidaltzeko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezzen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudiak xedatutakoaren arabera.

Ekonomiaren Garapen Batzordea 2024ko ekainaren 24an bildu zen, eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau aurkeztu zen Batzordeko Oso Bilkurak ekainaren 28ko saioan lantzeko. Bertan, gehiengoz onetsi da.

II.- EDUKIA

“Farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atala arautzen duen dekretu-proiektuak” zioen azalpena, 11 artikulua, xedapen gehigarri bat eta azkeneko bat ditu.

Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legeak aitortzen du farmazia-bulegoan, arreta farmazeutikoa egiteaz batera, hori baita jarduera nagusia, beste funtzio eta jarduera profesional eta sanitario batzuk egin daitezkeela (5.2 art.) Bestalde, Lege horren 7.4 artikulua agintzen du erregelamenduz zehaztu behar direla betekizun tekniko eta materialak, bai eta farmazia-bulegoek izan behar dituzten azaleraren eta tresneriaren banaketa ere.

Arreta farmazeutikoko jarduera nagusiari dagokionez, alderdi horiek abenduaren 27ko 481/1994 Dekretuak arautu zituen. Dekretu horren 4.1 artikulua ezartzen duenez, farmazia-bulegoetan, arreta farmazeutikoaz gain, beste funtzio profesional eta sanitario batzuk egiten direnean, funtzioek dagozkien espazioak eta baimenak izan beharko dituzte.

Farmazietan egin izan diren funtzio profesional eta sanitario horien artean hiru dira aipagarri: analisi klinikoak, ortopedia eta optika. Horiek farmazia-bulegoetako “atal” deiturikoetan garatu izan dira. Uztailaren 2ko 165/2002 Dekretuak atal horiek arautu zituen, bete beharreko baimenen araubidea zehazteko asmoz, bai eta baimen horiei eska dakizkiekeen gutxieneko betekizunak ere, herritarrei atal horietan ematen zaien zerbitzuen oinarrizko kalitate-mailak bermatzeko.

Ondoren, Osasun Lanbideen Antolakuntzari buruzko 44/2003 Legeak Giza Nutrizioko eta Dietetikako Diplomadunaren unibertsitate-titulu ofiziala arautu zuen, eta, bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2018ko azaroaren 13ko Akordioaren bidez, UPV/EHUko Farmazia Fakultateko Farmazia eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradu Bikoitza ezartzea onetsi zen. Aurrekoaren ondorioz, urteotan zehar farmazia-lizentziatura duten pertsona askok eskuratu dute, gainera, Giza

Nutrizioko eta Dietetikako Diplomatura edo Unibertsitate Gradua, eta horrek farmazia-bulegoko giza nutrizioaren eta dietetikaren atala erregulatzen du, farmazia-bulegoak eskaini ditzakeen beste funtzio eta zerbitzu sanitario bat gisa.

Era berean, adierazi da farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atalak bete behar duen baimenen araubidea, funtsean, gainerako "ataletan" aplikatu beharreko bera dela, hau da, 165/2002 Dekretuan jasota dagoena. Horrek indarrean jarraitzen du oso-osorik, eta, beraz, uniformizatuta geratzen da atal guztiak abian jartzeko behar diren baimenak lortzeko prozedura administratiboa.

Azkenik, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ulertu behar dugu farmazia-bulegoko giza nutrizioaren eta dietetikaren atala sortzeko eta abian jartzeko baimenak lortzeko prozedura osatzen duten izapideak farmazia-elkargoko kideek bete behar dituztenez, nahitaez egin behar dela izapide guztien eta administrazio honen arteko harremana, izapidetzeko modu bakar eta esklusibo gisa.

Xede horrez, Dekretuaren proiektuak honako artikulua hauek garatu ditu:

1. art. Aplikazioko eremua
2. Art. Baimena behar duten jarduerak
3. art. Jarduera nagusia
4. art. Giza baliabideak
5. art. Baldintza teknikoak eta lokalarenak
6. art. Giza nutrizioaren eta dietetikaren atala sortzeko baimen-prozedura martxan dauden farmazia-bulegoetan.
7. art. Giza nutrizioaren eta dietetikaren atala duen farmazia-bulegoa martxan jartzeko baimena
8. art. Giza nutrizioaren eta dietetikaren atala sortzeko baimen-prozedura sortu berri diren edo lekualdatzeko izapideak egiten ari diren farmazi-bulegoetan.
9. art. Giza nutrizioaren eta dietetikaren atala artatzen duen profesional-aldaketa
10. art. Aldaketak giza nutrizioaren eta dietetikaren atalean
11. art. Giza nutrizioaren eta dietetikaren ataleko jarduerak etetea

III.- GOGOETA OROKORRAK

Gure iritzira aurkezten da *"Farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atala arautzen duen dekretu-proiektua"*. Euskadiko farmazia-bulegoetan giza nutrizioaren eta dietetikaren atala sortzeko eta abian jartzeko baimen administratiboak eskuratzeko eska daitezkeen betekizun teknikoak

eta gutxieneko baldintzak ezartzen ditu.

Zioen azalpenean azaltzen den bezala, Dekretu honen xedea da farmazia-bulegoetako titularrek, Farmazia eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako gradu bikoitza badute, farmazia-bulegotik zerbitzu pertsonalizatua eman ahal izatea, honako funtzio hauek jorratuz, besteak beste: patologien araberako nutrizioa; diabetesagatiko elikadura; gaixotasun kardiobaskularra; urdail-hesteetako nahasmenduak; hiperuzemia; hezueria; anorexia, bulimia eta bestelako nahasmenduak; eta adin-taldeen araberako nutrizio-alderdiak, hala nola emakumearen nutrizioa bizitzako etapa guztietan (nerabezaroa, adin emankorra, haurdunaldia, menopausia, eta abar).

Hortaz, farmazia-bulegoetan ematen diren arreta farmazeutikoaren funtzio eta jarduera profesional osagarrietan (analisi klinikoak, ortopedia eta optika, 165/2002 Dekretuak arautuak), giza nutrizioari eta dietetikari buruzkoak sartu nahi dira, horrek dakartzan beharrezko berme guztiekin eta segurtasun juridiko eta sanitarioarekin. Positiboki baloratzen dugu hori.

Bestalde, arau berri horretarako oinarri hartu denez 165/2002 Dekretu hori, indarrean jarraitzen baitu oso-osorik, farmazia-bulegoetako edozein atal abian jartzeko baimenak eskuratzeko prozedura administratiboa uniformizatuta geratzen da, zalantzarik gabe segurtasun juridiko handiagoa lortze aldera.

Hala ere, 4.1 artikuluan jasotakoari dagokionez, kasuan kasuko baimena emateko betekizun gisa eskatzen baitu farmazia-bulegoaren titularrak diziplina horretako unibertsitate-diplomadunaren edo -graduatuaren titulu ofiziala izatea¹, betekizun hori berriz planteatzea komeni dela adierazi nahi dugu.

Abiapuntu izan behar dugu babestu beharreko interes orokorra, edonola ere, jarduera horrekin lotutako eta gaur egun dagoen intrusismoa saihestea dela. Alabaina, uste dugu interes orokor hori defendatzearen ondorioz, zerbitzu horiek farmazia-bulegoetan ematea erraztu behar dela, eta, beraz, farmazialari titularrari titulua eskatzea gehiegizkoa izango litzateke xede horretarako.

Gure ustez, farmaziaren titularra ez den kontratatutako pertsona batek titulu hori izateko aukera ematea aldi iragankortzat jo daiteke, zerbitzu-emate horretan beren-beregi espezializatutako jarduera-sektore berri bati gerora sartzen laguntzeko.

Eta, zentzu horretan, ez gatoz bat Sailak dekretu-proiektuaren alegazioen memorian planteatutako argudioekin, honako arrazoi hauek direla eta:

Lehenik eta behin, ez litzateke diskriminaziorik ezarriko analisi klinikoen, ortopediaren eta optikaren atalen inguruan, titulu hori ez baita behe-mailakoa (diplomaduna edo graduatua), iraupen luzekoa, ez eta graduondoko trebakuntza edo heziketa hutsa ere.

Gainera, farmazia-bulegoaren titularrari goi-mailako titulua eskatzea bereziki zaila izango da adinik aurreratuenentzat; izan ere, aurreikuspenen arabera, askotan, ez dute planteatzen nutrizioaren eta dietetikaren atal hori irekitzea.

Bigarrenik, eskakizun hori malgutzeari esker, erantzukizun bikoitza egongo litzateke jardunbide txarraren kasuan (farmazia-bulegoaren titularrarena eta nutrizioaren eta dietetikaren atal berriaren

¹**4.1 artikulua** honako hau xedatzen du: "Giza nutrizioaren eta dietetikaren atala baimentzeko, ezinbestekoa izango da farmazia-bulegoaren titularrak Giza Nutrizioko eta Dietetikako Unibertsitate Diplomadunaren edo Graduatuaren titulu ofiziala izatea, eta atala irekitzeko ahalmena ematen duen elkargo ofizialean elkargokide izateko baldintza betetzea.

titularrena).

IV.- GOGOETA BEREZIAK

2. art. Baimena behar duten jarduerak

3. **epigrafean**, giza nutrizioaren eta dietetikaren atalaren berezko funtzioak zerrendatzean, uste dugu egokiagoa dela “*patologiari araberako dietak ezartzea*” deitzea “*patologiari araberako nutrizioa*” deitu beharrean.

Halaber, kategoria horretan “*hiperkolesterolemia*” eta “*haurren obesitatea*” patologiak sartzea proposatzen dugu.

4.1. art. Giza baliabideak

Gogoeta orokorretan adierazitakoa berresten dugu, eta, ildo horretan, honako **testu alternatibo** hau proposatzen dugu:

“1. Farmazia-bulegoaren titularra izango da nutrizioaren ataleko osasun-jardueraren arduraduna, eta ziurtatuko du, betiere, farmazia-bulegoaren buru izango dela giza nutrizioko edo dietetikako diplomadunaren edo graduatuaren titulazio ofizialaren betekizunak betetzen dituen profesional bat, identifikazioa agerian duela.”

Subsidiarioki, konponbide hori aldi baterako planteatu daiteke lau urterako. Horrela, farmaziaren titularrek ez badute titulurik dekretua indarrean jartzen denean, eskuratu ahal izango lukete epe horretan atal hori irekitzeko aukerarik izan gabe.

V.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz egokia da “*Farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atala arautzen duen dekretu-proiektua*” izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetak aintzat hartuta.

Bilbon, 2024ko ekainaren 28an

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria